

EGILEA **joxe blanco gomez**

ILLUSTRAZIOAK **mosk creativa**

ARGAZKIAK **ramon goldarazena & sergio gaztanbide “mestizo”**

AZALA ETA DISEINUA **mux**

LEGE GORDAILUA.DEPÓSITO LEGAL. DÉPOT LÉGAL: **XXXXXX**


EUSKAL HERRIA 2004


ataramiñe kultur elkartea argitaratzen du



ataramiñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA ETA ARTE KOADERNOAK







Seineri
aurrez aurre
kontaturiko
ipuinak




hodei guztien azpitik
hesi guztien gainetik








Joxe Blanco Gomez
1967
Laudio



2001. urtean atxilotu
eta espetxeratu zuten,
eta hau ez da espetxea
ezagutzen zuen
lehenaldia.
Bonxe espetxean dago.







Aitzinsolasa “Tira, topikoa bada ere, aitatasunak (edo amatasunak) bizitza erabat aldatu egiten dizula esan ohi da, baina egia borobila da. Bizimodua eta ohiturak hankaz gora jartzeaz gain, buru mailan, bizitza ikusi eta ulertzeko ikuspuntua aldatu egiten dizulakoan nago. Nik, behintzat, holan sentitu dut. Eta esate baterako, bereziki harritu ninduen umeen kontuetarako “garatu” nuen zaletasunak, hots, jolasak, kantak, ipuinak, pailazoak..., bat batean “berdeskubritu” eta sekulako grina sortu zidaten. Jakina, sortzen lagundu, zaindu eta maitatzen duzun txiki horrekin komunikatu ahal izateko bere hizkuntzaz berba egin behar, mundua bere begietatik ikusten saiatu behar...

Gauzak horrela, errepresioaren atzaparrek atrapatzenten gaituztela, banaketa eta komunikazio murrizketa inposatzen direla, umeari kolpea eta egoera berria ulertarazketo orduan, harekiko komunikazioan “bere hizkuntza” menperatzea are ezinbestekoagoa bihurtzen da”.

Horrela hitz egiten digu kartzelatik bere semetxoarekin egoteko, eta hazten ikusteko, ezindua dagoen aitak, Mario Benedetti poeta uruguaiarrak idatzitako *Hombre preso que mira a su hijo* izeneko poema haren oihartzun bat dakarkigularik.

Ipuin xorta hau plazaratzearekin zabaltzen den atea hutsune bat betetzera dator zorigaitzoko Euskal Herri honetan, non asko eta asko diren beren seme-alabekin jolasteko edo ipuin solasean aritzeko “aurrez-aurrekoez” profitatu behar dituzten gurasoak, edo sarritan gertatzen den legez, urrunetik bidalitako ipuin hegalariez konformatu behar izatea • **ataramiñe**







Seineri
aurrez aurre
kontaturiko
ipuinak



hodei guztien azpitik
hesi guztien gainetik





Marisorgina

9

Sagu zahar txikiaren istorioa

21

Honddarbiko familia ausarta


31

Mendizale apartak

45

Artea, Iratiko sorgina

65



MARI SORGINA



KILKER KANTARIA
BERBETAN HASI ZEN, GUA
OSOA KANTARI ETIAN ONDOREN,
BERE TXILIOXA LURREZ,
ZUEN HASERRE, ZULO BERRI EGOKATU
EGIN SETKAK IZANGO ZUEN ETA.
JATEN OHI ZUEN BELARRA MARRAZKA-
MARRAZKA EGINDA AURKIU ZUELA
OZENKI ESATEKO.

BALIK ARMARMAK ERE, BERLATU
HILABETEFAN SARE DOTEKE ASKO
GUTXEN JARDUN ETA EGUN BATEN
GUZTIZ URRATURIK AGERTU ZITXON
GEROZIK, ELIXOAK EMERIGITU FRANEAN
OMEN ZELEN...



**IHFURTARIA (GAUEZ ARGIA DEN
XOMORRO ADESKIA) ARGIA EGITEKO
ARTE-LOREAK DESAGERTU ZIREN**
ASPALETAKO
ETA GAUEZ ARGIA
EMAN ESKERKOAK
KONTAKU ZUEN.



MARI SORGINA JARRIEN ZUEN:
- GERITUTAKOAK KUSTEAK
SUSMO BAT ATZEMAN DIT:
DUELA GOKI, FRAGI
DUTEN LANTEGI ITXUSA
HORREK LABE-XOMORROAK
ERAKARRA DITU ETA ERREZ
DABILTZA. (BELDURREZKO
ZURRUMURRIA ZABALDU ZEN
BATZARRLEAN ZEHAR.)



OIDO EGUNTEEN BIUT, KARZIAK
DIRA, GIJKIAREKIN BIZTEN
CHITUA ETA BASA-XOMORROAK KALTEA
BESTERIK EZ DIGUTE EGITEN. ZIUR
ANDO. EUREK IZAN DIRA TXIKIZKO
HOMEN ERREDUN. LABE-XOMORROEGUN
AMAITZEKO ZEROAT EGUN BEHAR
DUU ETA AGUDO.

MARI SORGINA, XOMORROEN
ERREGINA, OSO AZKARRA ZUEN ETA
BERHALA SOLVIZORIDEA
AURKIU ZUEN.

EUN BATEL, BASO-AZPIKO
XOMORRO GUZTAK BATZARTU ZIREN
LARREAN, AZKENALDIAN
ALDREBESEKERA UJARI BERTAHEI
ARI ZELA ETA.
MARI SORGINA BURU ZUTELARIK,
NORK BERE ARAZOA
AZALTZEARIA
EUN ZION.



INURRIA, TXIKIA BATINO TRICIGABA,
INURRATEGIAN GERITU TRICIGIZAZ,
AMURRATURIK MANTZTU ZITXON,
ZEHARO AURKIU BARRANDIA
BANTZUEN,
JAMARI BALA IOCANDAKO
BATEN BUELtan.

**HASERREPAEDIA ZEIA
ETA, BATZARRA BORIGORAN ZEDEGI:**
XOMORROEK KUTXA IDENTZEN ZIOTEN
ELKARRA, ISKABILA BATEAN.
ZALATARTA ARTEAN, MATXINSAL-
TOA ERE KEXU AGERU ZEN,
BERE ETXEKO BAZTINIAUDIO-OSTIA
JANDA ZEUDELAKO.



ALLARA HAREGIN, EKAR
ULERTZERIK EZ ZEODUN ETA ORDUAN.
MARI SORGINAK, TXIKI OZEN BATEGAN.
XOMORRO GUZTIEN IXILTEKO AGINDU
ZIEN.

**SOLVIZORIDEK BEHAR
DITUU ETA ALDREBESEKIA
EGUZTI HAUN ATZEEAN**
NOR EDU ZER DALGEN ARITU
LEHEN BIZKOZ. EA..., BATEK
PISPARIK BA AL DU, BA AL DAKI
ZER EDU NOR IZAN DAITEKE
ERRUDINTA??
XOMORRO GUZTIEN ARTEAN,
IXILTSUKA NAGUSIA DAN ZEN.



**KILLIKARRAREN LABONTZI
ARGITZERIK NORRITO ZULO
HANDI BAT ATONDIZUNTEEN,
LABE-XOMORROAK ERREZ
DIBO ASMOZ,
ETA ZENTRA
GUZTIAK
HURRIKIDOKO,
LURRAZ ESTALIKO
ZITXETEN.**

**HALNE EGUN ZUEN DA
HALNE LABEZINAK
ZEHIA BETIKOR DESAGERTU
ZIREN, BASO-AZPIKO
LUR-ZORUTIK.**





Marisorina

Egun batez,
baso-azpiko xomorro
guztiak batzartu ziren
larrean, azkenaldian
aldrebeskeria ugari
gertatzen ari zela eta.




Marisorgiña
buru zutelarik,
nork bere arazoa
azaltzeari ekin
zion.




Kilker kantaria berbetan
hasi zen, gau osoa
kantan eman ondoren,
bere txulotxoa lurrez
estalirik topatu zueneko
gogoratu zuen haserre, zulo
berri bat egin behar izango zuen eta.




Ehunzangoak hitza kendu
zion jaten ohi zuen belarra
marrazka-marrazka
eginda aurkitu zuela
ozenki esateko.




Baita armiarmak ere,
gertatu alukeriaren berri eman zuen,
hilabetetan sare dotore askoa egiten jardun
eta egun batean guztiz urraturik
agertu zitzaion, geroztik, eltxoak ehizatu
eginean omen zebilen...





Inurria, txikia baino txikiagoa,
inurrитеian gertatu txikizioaz,
amurraturik mintzatu
zitzaien, zeharo
birrindua aurkitu
baitzuen, janari
bila joandako
baten
bueltan.


Haserrealdia
zela eta, batzarra
gori-gorian zegoen:
xomorroek hitza
kentzen zioten elkarri,
iskabila batean.




Zalaparta artean, matxinsaltoa
ere kexu agertu zen, bere etxeko
gaztainondo-ostuak
janda zeudelako.



Ipurtargia (gauez argia
ipurdian argia duen
xomorro adeitxua) argia
egiteko argi-loreak desagertu
ziren aspaldiko eta gauez argia
eman ezinekoa kontatu zuen.






Zapataria zeharo amorratua
agertu zitzaien, erreka
ondoko kabia zapuztuta
aurkitu zuelako eta
berriro ere adaxkak
biltzen hasi beharko zelako.



Kakarraldoak kabirik
gabe ere geratua omen
zen, eta bolaxomorroa,
muturtuta, bolak egin
eta itzulipurdika
jeisteko zerabilen
aldatsa harriz beteta
aurkitu zuen eta.



Algara harekin, elkar urlertzerik ez zegoen eta orduan, Marisorgiñak, txistu ozen batekin, xomorro guztiei ixiltzeko agindu zien. Guztiak begira zituela hitz egiten hasi zen.


*– Ixo, arren! Txikizio izugarria
izan da baina algara baten
ibiltzeak ez digu batere lagunduko.*



Soluziobideak behar ditugu eta aldrebeskaria guzti hauen atzean nor edo zer dagoen argitu lehenbizikoz.

- *Ea..., baten batek pistarik ba al du, ba al daki zer edo nor izan daiteke erruduna?*

Xomorro guztien artean, ixiltasuna nagusi izan zen.





Marisorginak jarraitu zuen:

Gertatutakoa ikustea susmo bat antzeman dit.


Duela gutxi eraiki duten lantegi itsusi horrek labe-xomorroak erakarri ditu eta erruz dabiltza.



(Beldurrezko zurrumurrua zabaldu zen batzarrean zehar).



Ondo ezagutzen
ditut, gaiztoak dira,
gizakiarekin bizitzen ohitura
eta basa-xomorroei kaltea
besterik ez digute egiten. Ziur
nago. Eurek izan dira txikizio
honen errudun.


Labe-xomorroekin amaitzeko
zerbait egin behar dugu
eta agudo.







Marisorgina, xomorroen erregina, oso azkarra zen eta berehala soluziobidea aurkitu zuen. Kilkerraren laguntzaz, argi-lorez hornitu zulo handi bat atonduko zuten, labe-xomorroak erakartzeko asmoz, eta bertara guztiak hurbildu orduko, lurraz estaliko zituzten. Halaxe egin zuten eta halaxe labezomorroak behin-betikoz desagertu ziren, baso-azpiko lur-zorutik.






Sagu zahar txikiaren istorioa



Atxarte
inguruko kobazulo
batean sagu-zahar txiki
bat bizi zen.
Sagu-zahar guztiekin bezala,
egunetan zehar lo egin eta gauez,
ehizan janari bila irteten zen. Euliak,
eltxoak, zizareak,...era guztietako
xomorroak jaten zituen, sagu-
zaharrak intsektu-jaleak baitira.
Eguntasentian sabela bete-bete egin
eta gero, kobazulora itzultzen
zen lotara.




Gure sagu-zahar txikia, gaztea izanik,
ausarta eta odolberoa ere bazen.

Askotan goseak eraginda,
hanka-sartze itzelak
izaten zituen.

• Hola, behin, harri
koxkor bat jaten
saiatu zen
marigorringoa
zelakoan eta
egundoko hortz
mina izan zuen.







Beste batean, ehunzango txiki baten itxura zuen
makilatxo bat jateak itzelezko sableko mina eragin zion,
biharamuna botaka igaroz.


Egusentian sabela bete-bete egin eta gero,
kobazulora itzultzen zen lotara.





Egun batean, hegan zihoala, xomorro handia antzeman zuen. Bere bila abiatu eta bere letagin zorrotzekin heltzen saiatu zenean, laban egin eta min hartu zuen. Xomorro haren oskola gogorregia zen, xomorro hura kakarraldo erraldoia baitzen.






*Okertu zara sagu-zahar bihurri hori,
jaki handiegia naiz zuretzat
– esan zion kakarraldoak.*



*Barkaidazu kakarraldo andrea, baina
nik,...,zera,...nik senditzen dut
– erantzun zion sagu-zahar txikiak.*

*Barkatzeko?...
hum...ondo pentsatuta primeran datorkit
zurekin topo egitea. Entzun ondo
– esan zion kakarraldoak.*






- Nire kumeentzako kabi baten bila nabil. Barkatuko dizut baldin eta laguntzen badidazu.
- *Ba...begira-* erantzun zion saguzaharrak– *bizi naizen kobazuloa lehor eta lasaia da, inor gutxi dabil handik. Leku aproposa izango da zure familiarentzat. Nahi baduzu –jarraitzen zuen-nirekin etor zaitezke.*
Ondo deritzot– kakarraldo erraldoiak erantzun.






Eta hara
joan ziren biak
poz-pozik, sagu-zahar
txikia, bizitzak ikasgai berria
eman ziolako eta kakarraldoa,
korrika baten bere atzetik, bere
kumeentzako kabia topatu
zuelako.





Hori hala bazan
sar dadila kalabazan
eta atera dadila
Laudioko plazan

*Musu goxo-goxo bat
Aitatzoren partez,
butifarria ali-olirekin*



HONDARRIBIKO FAMILIA AUSARTA

GIPUZKOAKO KOSTALDEAN, HONDARRIBI IZENKO HERRIAN, FAMILIA BAT BIZI ZEN. XANTIK, AITA, IBASIGIZONA BERA, MUNDUKO EGUN BATEAN, SERE FAMILIAK HONAKO PROBLEMA EGIN ZION: BERAK EGUNIKO BELAUNTAZ 34TEAN FAMILIA OSOA SARTU ERA MUNDURI.

ETA HALAKXE, EGUN ZUEK, GOLOR LAN EGUN ETA GERO, BELAUNTAZ EDERRA FRAGI ETA DENTA FESTI DAW ZUTERAK, HIRA ASIARI ZIELEN, URKO ETA ZIGOR SEME TRILGAK ETA MADDI AMABOA, XANTI KAPIMIARA BELAUNTAZBURU ZUTEARK.

BELA MARRADUN HAINDAZETZ HORMITURIK ZEGOEN BELAUNTAZIARI JOTA KE IZENA ITXIN ZIOLEN, ETA GOKO PUNTAK IKURRIÑA ZERMAN, MUNDU GUZTIAK ESKALDUNAK ZIRELA ADIERAZTEKO.




OZENKO BAREKO IRIA BATEAN, FALMONDO BATEN ENBORRAREGIN DABORDA JOTEN ZUTEN MULKO ETA NESKATO BATEVEGIN ELKARTU ETA EHUNDOKO JAJA OSPAN ZUTEN, EGUN SENSIARTE IANTZAN ETA KANTA ARINTZ.

BESTE BATEAN, URKO ETA XANTIK KOKODRILLO IZUGARRI HANTZ BAT EHIZATU ZUTEN BERE OZKA JAJA, LARRVAZALAREGIN POLKA ETA SINETAKO POLIT ASKOAK ETA HORTZAGIMEGIN LEPOKO IKUSKARRAK EGUN ZUTAREN.



MUNDURI BIZIATZA OSOA EMAN ONDOREN, HAMAIKA KREATORA, HAMAIKA HERRIALDE, HAMAIKA LABUN ZAPATI ONDOREN, ETIERA, EUSKAL HERRIRA ITZUTZEA ERASAKI ZUEK GURE FAMILIAK.

URTEAK ETA URTEAK IKASOAN MISA ETA GERO, HONDARRIBIKO KAIARA IRISTEAN, LABUN URARI ZAH ZUTEN ONGI ETORRIKA EMATEKO. ORDIDAN BAPTEAN, KAIAKO IEASUNTEA, GIZAIEN TRASTIUK JOTZEN HAPI ZIREN ALBARRA BATEN. SEGIDAN, BAKOTZAK; TRAPESA BANIA IPINI, LORE SORTAK EMAN ETA EHUNDOKO FESTA OTATU ZIETEN.





HORN HALL BIZI
SAR MUSICA KONTZERTO
ETA ATEKO ZABALA
LARRODO POZON
(EUSKAL HEDABIDEKO KULTURA
TRADICIONALAK IFRANDIA
TRADICIONALAK IFRANDIA
BERROZKIEN KONTZERTUAK)


ZORIAN EGON ZEN BAIKA GURE LAGUNEN ZUHURTEKO TA BALENDIARIKI TSIGER, LAIZKA BERE SARRA BURLATU ZIREN. IRIA BAREKO HERRIXKA BATEAN, IJUANA KUME TAIKO BAT TOITU ZUTEN. BELAUNTAURA ERA MAN, BERGAN DEATU ETA IJATEN EMAN OSTEAN, HUSTURA GERATU OMEN ZEN IJUANA GIZARAIKA ETA FAMILIALKO PARTIDA IZAN ZEN KERROZKIK. TRIK IZENA IPINI ZIOTEN.




Honddarbiko familia ausarta




Gipuzkoako kostaldean, Hondarribi izeneko herrian, familia bat bizi zen, Xantik, aita, itsasgizona bera, munduko itsaso guztiak zeharkatu zituen, horixe zuen ogibidea ta. Egun batean, bere familiari honako proposamena egin zion: Berauk eginiko belauntzi batean familia osoa sartu eta munduari buelta emango zioten.








Eta halaxe egin zuten, gogor lan egin eta gero, belauntzi ederra eraiki eta dena prest izan zutenean, hara abiatu ziren, Urko eta Zigor seme txikiak eta Maddi amatxoa, Xanti Kapitaina belantziburu zutelarik.


Bela marradun handi batez horniturik zegoen belauntziari jotake izena ipini zioten, eta goiko puntan ikurriña zeraman, mundu guztiari euskaldunak zirela adierazteko.







Belauntzia euren extabihurtu zen eta baleak, izurdeak ta marrazoak bidaideak izan zituzten harrez gero. Egunero tomate, saltxitxa edota letxuga beharrean, olagarro, otarrain eta era guztietako arrainak izango ziren euren janaria.







Urko eta Zigor
ikastolara
joaterik ez
zutenez, Maddik,
ama, andereñoarena
egiten zuen eta goizero
fitxak, marrazkiak eta abarreko
eskolako beharrak egiten zituzten;
arratsaldez eta gauez, gurasoei barkoa
gobernatzen lagundu egiten zieten.






Bidaiaik iraun zuen
urte luze guzti
haietan, mentura
asko bizi izan zuten.
Leku eta herrialde
ugarietan egon ziren,
non eta lagun asko
egin zuten.






Ozeano bareko irla batetan, palmondo baten enborrarekin daborra jotzen zuten mutiko eta neskato batzuekin elkartu eta ehundoko jaia ospatu zuten, egun sentiarte dantzan eta kanta arituz.






Beste batean, Urko eta Xantik
kokodrilo izugarri handi bat
ehizatu zuten bere okela jan,
larruazalarekin poltsa eta
oinetako polit askoak eta
hortzaginekin lepoko
ikusgarriak egin zituzten.








Behin, enbata agertu eta ikaragarrizko ekaitza ekarri zuen. Jotake hondoratzeko zorian egon zen baina gure lagunen zuhurtasuna ta balendriari esker, gauzak bere onera bueltatu ziren.







Irla bateko herrixka batean, iguana
kume gaixo bat topatu zuten.
Belauntzira eraman, bertan osatu
eta jaten eman ostean, gustura
geratu omen zen iguana gizarajoa
eta familiako partaidea izan zen
geroztik. *Truk* izena ipini zioten.







Munduari buelta osoa eman
ondoren, hamaika mentura,
hamaika herrialde, hamaika
lagun ezagutu ondoren,
etxera, Euskal Herrira
itzultzea erabaki zuen gure
familiak.






Urteak eta urteak itsasoan pasa eta gero,
Hondarribiko kaiara iristean, lagun ugari zai zuten
ongi etorria emateko. Orduan bapatean, kaiako
itsasuntzi guztien txistuak jotzen hasi ziren algara
bat. Segidan, bakoitzari txapela bana ipini, lore
sortak eman eta ehundoko festa opatu zieten.





Hori hala bazan
Sar dadila kalabazan
Eta atera dadila
Laudioko Plazan.


*(Ausikada goxo-goxoak ipurdian,
aitatxoren partez
bere butifarra kuttunari)*









Mendizale apartak




Behin, aspaldian ikusi gabe, hiru lagun sagardotegi batean elkartu ziren. Tasio, Peru eta Lontxo, hirurak mendizale apartak, txuleta, makailo, intxaurrek, sagardoa... bapo jan eta edan ondoren, afalondoko solasaldiari ekin zioten. Azkenaldiko eskaladak, egindako tontorrak, ibilaldiak..., izan zuten hizpide beti bezala.







Egitasmoak, hurrengo udarako planak..., sagardoak emandako arintasunari esker hamaika ideia bota zituztenetako batek bereziki kilitan zituen gure lagunak: pirinioak oinez zeharkatzeko aukera.


Baiezkotan, ados jarri ziren, piriniotako zeharkaldia, Kantauri itsasotik Mediterraneo itsasoraino, mendiz mendi, elkarrekin egingo zuten udapasa.





Berehala prestaketetan murgildu ziren eta uda hurbildu ahala, beharrezkoia izango zuten guztia atontzeari ekin zioten: motxilak, mendiko botak, kanpindenda, janaria, lozakuak, kopeta-argia, bastoiak, sukaldetxoa...







- Konturatu gabe, lar potoldu zaizkugu bizkar-zorroak! Bota zuen Tasiok.

Arrazoia duzu motel!

– Peruk erantzun zuen.

Gauzaren bat baztertu ala... Badakit zer egin demontre! Txikito, baserriko astoa eraman dezakegu eta zama gehiena bere bizkarretan paratu.







Zu bai astokiloa! – Tasiok. Zelan eramango dugu asto bat gurekin? Enredua besterik ez digu egingo ta gainera... zer jango du bada? Berarentzako janaria eraman beharko...


Ondo pentsatuta, ideiak ez du ematen hain txarra denik. – Lontxo animatu zen.


Eta Peruk: *Baietz, lagungarri izango dugu eta bere bazka ez da arazoa izango, goimendian belardi ederrak daude eta, gainera gure txikito txintxoa da oso.*






Tasio konbentzitu ondoren, halaxe egin zuten eta dena prest izan zutenean, hara abiatu ziren gure mendizaleak eta txikito astotxoa, zama-zama eginda, Piriniotan barrena. Hendaiko hondartzan eman zioten hasiera ibilaldi luzeari eta egun gutxira, auñamendietako, euskal piriniotako mendirik garaienetako magal zabal eta ederretatik ibiltzeko parada izan zuten.







Egun hartan, Otsogorriganeko lepoan gelditu ziren, bertan gaua pasatzeko asmoz. Kanpin-denda paratu, afaldu eta lotara joan ziren gure lagunak neke-neke eginda. Bihamarenean, txikotoren arrantzek intzartu zituzten goizean goiz. Ze demontre gertatuko ote, eta hara ustekabea, Peruk kremailleradun atetik burua atera eta aurreko gauean oharkabean utzitako janari-poltsa zabal-zabal eginda ikusi zuenean.



Arraioak! Hura ikustearekin
batera, Kamiltxo hartz
urruntzen zen lasterka.


Txorizo puska ahoan zuela,
txikitok arrantzaka segitzen
zuen bitartean.





*Aizu! Txikitori esker, bestela Kamiltxok gure
janari guztia jan eta zeharkaldia bertan
behera utzi behar izango genukeen.*


– Peruk leporatu zion Tasiori.



Gure mendizaleek aurrera egin zuten,
Auñamendiak atzean utzita eta Hueskako
paraje zoragarriekin gozatzen hasi
ziren: Atxerito, Alano, Atxer,
Bisaurin... agertu zitzaizkien, mendi
eder eta ikusgarri haiiek.
Aspeko haranera sartzen ari
zirela, artalde bat ikusi zuten.


*Kontxo! Artaldea bai, baina
non dago artzaia? – Harritu
zen Lontxo.*






Berehala konturatu ziren artalde hura ez zala batere normala, izan ere, amaiera ez zioten antzematen eta denbora luzean ardiak besterik ez zuten ikusten amaierarik gabeko artalde hartan.




Trashumantzia zen, hau da, behekaldetako artalde guztiak elkartu eta batera zeramatzen artzaiek goimendiko belardietara, belar freskoaren bila.








Ardi hilara luze haren atzeko partean
zihoazen artzaia zelatan eta gure
lagunekin topo egitean, elkarri agurtu eta
norabide berbera zutenez, egun hartako
ibilaldia batera egin zuten atseginez,


kontu kontari, txikitok
artzai-txakurrekin
izan tirabirak
salbu.







Egunak joan, egunak etorri, zeharkaldiak
aurrera egin ahala, Piriniotako gailur eta
gandor erraldoiak, mendirik garaienak
atzera: Perdido, Vignemale, Posets, Aneto...
Hilabete inguru zeramaten ibiliz, jotake,
mendiak gora, mendiak behera, eta nekea
agertzen hacia zen gure mendizaleen
gorputzeten.






Egun batean, kanpin-denda paratzeko leku polit eta egokia antzeman zuten laku baten ondoan, baina bat-batean itzelezko ekaitza gaineratu zitzaien, eurijasa izugarria zekarrena eta lakua baino apur bat beherago zogoen aterpera jotzea erabaki zuten, epelera, eta bertan gaua pasa goxo-goxo.






A zelako
ustekabea, barrukaldera sartu eta
Juantxu aterpe-zaina ezagutu zutenean;
aterpea katalunyan egon arren, euskalduna
baitzen gure Juanixu. Gau hartan ederto afaldu
zuten Juanixuk prestatu berakatz-zopa, butifarria
aliolirekin eta pantumaka, lurralte hartan
ohitura den bezala. Txikitorentzako
sorpresa egon zen baita ere, azukre
koxkor batzuk eman zizkioten
eta.




Hurrengo goizean, oilarra baino lehenago jeiki ziren; La Pica D'estats menditzarra igo nahi zuten gure lagunek. Juantxuk, aterpe-zainak, lagundu zien eta guztiok batera iritsi ziren tontarrera, baita Txikito ere, La Pica-ra igotzen zen lehenengo astoa beharbada.





Handik bi egunetara, gure mendizaleok Port Bou-ra heldu ziren, hau da, Pirinioak Mediterraneo itsasoarekin bat egiten duen lekura, zeharkaldiaren amaiera. Ehundaka kilometro ibili ondoren lortu zuten; hainbesteko neke, poza, hotza, beroa... pasa ondoren, Pirinioak mutur batetik bestera oinez zeharkatzea lortu ere.





Egindako balentriagatik pozet gainezka, gure lagunek loezko koroa ipini zioten Txikitori, merezita zuen eta; gero mendiko botak kendu eta hondartzara joan ziren. Eta holantxe, amaitu zen hiru mendizale hauen mentura, pozik eta zoriontsu Pirinioak betirako euren bihotzeten geratu zirelako.









Artea, Iratiko sorgina





Iratiko oihan zabalean, harriz eta zurez egindako etxolan, Artea sorgina bizi zen. Oihanean bizi ziren animalia guztiekin asko maite zuten, izan ere, Artea oihaneko zaindaria zen, basoa eta bizilagun guztiak bere onean egoteaz ardura zuena, hain zuzen.






Tximistak pago
handi bat jo eta txikitu egiten
zuela, hara joaten zen gure
sorgina egurra biltzera, inguruan
zeuden pago txikiak argitara zabalduz,
oztoporik gabe hazi eta handiak utzitako
hutsunea bete ahal zezaten.
Sutea suertatu egiten zela, segituan
hegan zihoan ur bila, ahalik eta kalte
txikien izan zedin.





Haizeak urretxindorraren kabia bota egiten zuela,
Arteak laguntzen zion berehala kabia berregitzen.
Berak laguntzen zion udaberriari pagoen ostoa berde-
berde margozen eta era berean, udazkenari ostoa
lehortzen eta jaustarazten,
nagu hotza, elurra,
hurbil zeudela.




Denok bizi ziren poz-pozik baso
hartan, pagoak, txoriak,
oreinak, loreak eta
jakina, Artea gure
sorgina. Baino
egun batean,
ikusi zuenak zur
eta lur utzi zuen.
Oihaneko alde
bateko pagoak
gaixotzen hasiak ziren,
ostoa ximeltzen ari
ziren, euren bizitza
goibeltzen.







Ez zekien zer zela
eta gerta ziteken
guzti hura. Ez
zekien zer egin.

Orein batek
zergatia azaldu
zion: sorgin gaizto
batek, bekaizkeriaz
jokatuz, begizkoa
egin zion, bere
etxea eta lagunak
hondatu nahi
omen.



Oreinak esandakoak kezkati eta
pentsakor utzi zuen Artea.
Zerbait egin behar zuen azkar,
bestela, akabo oihaneko bakea!






Orduan, burutazioa euki zuen
eta egoera hartatik ateratzeko
bere sorgin-kideen laguntza
behar zuela erabaki zuen.



- *Bai horixe!*

Lehen bait lehen mezua
igorriko zien uso-mezularien
bidez.





Aspeko basoan, zuhaitz zahar
baten enborrean bizi zen
Munia sorginari batetik, eta
Ori mendiko magaletan
zegoen Sorgintxulo
izeneko leizean bizi zen
Ermíñe sorginari bestetik;
Iratira etortzeko esango
zien, euren laguntza
premiaz-premiazko zuen eta.







Munia eta Erminek mezua jaso
bezain pronto, Iratiko bidea hartu
zuten eta guxira, Organbidexkako
lepoan elkartu ziren sorgiñok.
Arteak egoeraren berri eman zien
bere lagunei eta sorgin gaiptoaren
asmo maltzurrei aurre egiteko
ahaleginetan ipini ere: sorgin
gaiptoaren melefizioa beste
trikimailu batekin deuseztatu
egingo zuten.







Oihaneko bizilagun
guztiekin akelarrea
ospatuko zuten eta bertan,
basoan bildu gaietik edabe
magikoa prestatuko. Edabea prest
egon zenean danok edan zuten,
baita txolindu ere, eta kilkerrak
kantan hasi ziren, igelak kroa-
kroaka, oreinak orroka, sorginak
barre algaraka eta jarraian
dantza egiteari ekin
zioten.






Bapatean,
tximistargiaren
antzko argitasuna
zeru osotik zabaldu zen
eta batera, ikaragarritzko
garraxia entzun ere.
Sorgin gaiztoa zen.














Gure sorginen eta bere basoko lagunen alaitasun eta
pozkarioari esker, malefizioa bertan behera geratu zen eta
sorgin gaiztoak lurra utzi zuen betirako.

Pagoak osatu ziren eta geroztik, bakean bizi omen dira
Iratiko oihaneko bizilagunak.









80

